

## XINAURRIA ETA XORIA (1878)

[Piarres Ibarrart](#)

(Jatsu, Lapurdi, 1838 – Baiona, Lapurdi, 1919)

Euskara batuan

Primadera hastetik uda azkenerat, / Xinaurria bazihoan landa bazterrat; / Xori papo-gorria arbola gainerat, / Egun oroz joaten zen kantuz aritzerat, / Eta xinaurriari [trufa egiterat](#).

Xinaurria goizean hasia lanari, / Egun guzietako duen gogoari, / Karga ezin altxatuz zen negarrez ari; / Xoria itzalpetik kantu eta irri. / Xinaurriak dio zerbait erran nahi:

—Xoria, hitz hau diat hiri errateko. / —Nik ere bi belarri hire aditzeko. / —Kanpoan baduk anitz ontasun biltzeko, / Emak xoko batean neguan jateko, / Lanean hasten bahaiz, ez zaik [dolutuko](#).

Xinaurri lepo-mehe itsusi [kiskila](#), / Ez nauk hireganat [jiten](#) deusen bila; / Lanean ez duk ari [ihizi](#) abila, / Utz ezak, utz ezak hik ere lan hori, ergela; / Berdin urte guzietan jiten duk uztaila.

Negu beltza heldu da abenduarekin, / [Horma](#) eta elurra, haize hotzarekin; / Xinaurria orain da gauza frankorekin, / Ongi jan eta edaten bere lagunekin, / Xoria zer egin den nahi luke jakin.

Xinaurria goizean badoa kanporat, / Xoria ere berdin usatu lekura: / —Kanta ezak, kanta orain kantu pollit hura. / —Nondik kanta dezaket, oraino [barura](#), / Sarraraz nazak, [otoi](#), hire etxolara.

—Haizen bezalakoa, hoakit bistatik, / Zer behar ote duk hik ene etxolatik? / —Emak apur bat bederen hire askaritik, / Otoi, begira nazak goseak hiltzetik, / Gehiago ez diat erranen gaizkirik.

—Auherra haizelakotz ez nauk [urrikaltzen](#), / Ikus ezak, ikus, orain zertaratu haizen; / Jainkoak eman onez ez haiz baliatzen, / Jakin ezak negukoa udan dela biltzen, / Goratzekotz lehenik ikas ezak apaltzen.

Xinaurriak ziona erran xoriari / Erran ahal daiteke mundu guziari: / Alferra dela [usu](#) gose eta egarri. / Lot gaitezen beraz denak bihotzez lanari, / Lurreko eta zeruko egitekoari.

*Bertsolaritzaren historia II* [Patri Urkizuren edizioa], Etor, 1991.